

SARRERA

MENDATA BHI-ko Kontingentzia Plan honek ikastetxeak bere hezkuntza jarduna gauzatzeko ezarri dituen osasun- eta hezkuntza-protokoloekin bat datozen higie-ne eta antolaketa neurriak jasotzen ditu hezkuntza-jarduera ahalik eta normaltasun handienarekin egin ahal izateko.

Neurri horien helburua ikastetxeko erabiltzaile guztiei, ahal den heinean, ingurune osasungarri eta segurua sortzea da, gure ikastetxera egokitutako prebentzio-, higie-ne eta osasun-sustapeneko neurrien bidez, aurrez aurreko hezkuntza-jarduna ahalik eta normaltasun handienarekin egin ahal izateko.

Kontingentzia Planak ezartzen dituen neurriak berraztertu, aldatu eta areagotu litezke osasun-egoeraren bilakaerak halakorik eskatuko balu, betiere osasun eta hezkuntzako agintari-ek unean-unean ezarritako irizpideen arabera.

Plan honek hezkuntza-jarduera erabat presentziala (1.AGERTOKIA), erdipresentziala (2.AGERTOKIA) eta erabat telematikoa (3.AGERTOKIA) garatzeko ezarritako neurriak jasotzen ditu. Neurri horiek ikastetxearen antolamenduari eta funtzionamenduari, ikasleen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari eta, azkenik, prebentzioa, higie-ne eta osasuna sustatzeari buruzkoak dira.

1. FUNTZIONAMENDUAREN/ANTOLAKUNZAREN BERRANTOLAKETA

1.1. IRAKASKUNTZA KOORDINATZEKO ORGANOAK (1/2/3 AGERTOKIAK)

Pedagogia Batzordea

- **Bilerak:** zuzendaritzak mintegi buruak, astelehenetan 10:30ean, deituko ditu aurrez-aurreko bileretara (hezkuntza-jarduna modu presentzian gauzatzen bada) edo bideokonferentzia bidezkoetara (konfinamendu egoeran).
- **Gai ordena:** zuzendaritzak DRIVE-z bidaliko die mintegi-buruei.
- **Akta:** zuzendaritzako idazkariak DRIVE-n jasoko du.

Mintegiak

- **Bilerak:** mintegi-buruek bere mintegi kideak aurrez-aurreko bileretara (hezkuntza-jarduna modu presentzian gauzatzen bada) edo bideokonferentzia bidezkoetara (konfinamendu egoeran), ohiko asteko egunean eta orduan deituko ditu.
- **Akta:** mintegi buruak DRIVE-n jasoko du.

Tutoreen eta orientatzailearen arteko bilerak

- **Bilerak:** orientatzaileak tutoreekin astero bilduko dira aurrez-aurre (hezkuntza-jarduna modu presentzian gauzatzen bada) edo bideokonferentzia bidez (konfinamendu egoeran).

1.2. TALDE-AGINTE ORGANOA

Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorena, Batzorde Iraunkorra eta irakasleen klaustroaren bilerak daurrez-aurre egingo dira (hezkuntza-jarduna modu presentzian gauzatzen bada) edo bideokonferentzia bidez (konfinamendu egoeran).

1.3. FUNTZIONAMENDUA 7 ANTOLAKUNTZA BERRANTOLATZEKO NEURRIAK

Ikastetxeko ordutegia

Aurtengo ikasturteko **lanaldi jarraituko ordutegia** 08:30etik 14:30era bitartekoa izango da.

Jolas-orduetako anolakuntza

Euria egiten duenean, ikasle guztientzako aterperik ez dugunez, jolas orduetan ikasleek aterpea izan dezaten ordutegia birrantolatu behar izan dugu. Orain arte bezala, ikasleek 15 minututako bi jolas ordu izango dituzte, baina orain, zikloka aterako dira, eta ez denak batera, aterpea partekatu ahal izateko. Gela bakoitza, momentu horretan gelari dagokion irakaslearen zaintzapean egongo da jolas orduan. Ordutegi hau hilero aldatuko dugu, beti maila eta ordu berdinei ez eragiteko.

Irteerak, sarrerak eta eraikun barneko joan-etorriak

Irteerak, sarrerak eta ikastetxe barneko joan-etorriak: Maila bakoitzak bere ibilbidea izango du ikastexera sartzeko, ikastetxetik irteteko eta eraikinaren barnean (beti eskuinaldetik) zirkulatzeko. Ibilbide horiek kolore ezberdinez markatuko dira, ondoren azaltzen den bezala:

- ❖ **1. maila** (urdina - goiko patioko sarrera)
- ❖ **2. maila** (horia - emergentziako ateko sarrera)
- ❖ **3. maila** (gorria - beheko patioko sarrera)
- ❖ **4. maila** (berdea - irakaslearen sarrera)

2. IKASLEEN IRAKASKUNTZA- ETA IKASKUNTZA PROZESUA: (2./3. AGERTOKIAK)

2.1. JARDUERA AKADEMIKAOREN BERRANTOLAKETA (2./3. AGERTOKIAK)

❖ 2. AGERTOKIA

Ikasle bat konfinatuta badago eta bere osasun-egoerak klaseak telematikoki jasotzea ahalbidetzen badio, irakasleak ikasle horrekin bideokonferentzia bidez konektatuko dira, ikasleak bere ikaskuntza-prozesua eten ez dezan. Ondorioz, **ikasle horri, klaseak jasotzen eta jarraitzen ari denez, ez zaio huts egitirik sartuko** Hezkuntzako aplikazioan.

Ikastetxeko zuzendaritzak, irakasleen klaustroak irailaren hasieran egindako bileran, ikasturte honetan hainbat ikasle eta irakasle konfinamendu-egoeran egongo direla aurreikusita (**2. agertokia**), irakasleek ikasleei klaseak *meet* aplikazioaren bidez ematea proposatu zuen, hau da, ikaskuntza-irakaskuntza prozesua telematikoki gauzatzea, konfinamendu-egoeran egongo bagina bezala. Horrela, ikasleei eta irakasleei prozesu telematikoko horretan sortutako

arazoak, zalantzak eta abar. garaiz konpontzeko aukera emango zien. Proposamena onartu zen eta irailean e horrela eman dira.

❖ 3.AGERTOKIA

Hezkuntza-jarduera ez-presentzialera itzuliko bagina, ondoren azaltzen den bezala berratorlatuko irakas-ikas prozesua:

1. **Ikasleen aste osoko lanak: Astelehenero, goizeko 08:30etarako, zuzendaritzak** aste osoan zehar ikasgai guztietan egin beharreko **lanaren dokumentua bidaliko diete euren ikasleei**. Bertan, ikasleek **egin beharreko lana eta lan hori noizko entregatu** beharko duten jakinaraziko zaie.
2. **Ikasleen zalantzak argitzea:** irakasleek euren ohiko klase-orduetan emango die ikasleei arreta zalantzak argitzeko eta azalpenak emateko. Ikasleak edozein unetan jar daitezke irakasleekin harremanetan, zalantzak argitzeko, azalpenak eskatzeko etab.
3. **Ikasleen lanaren jarraipena:** Irakasleek ikasleen etengabeko jarraipena egingo dute, eta dagokion dokumentuan garrantzizkotzat jotzen duten informazio guztia idatziz utziko dute. Informazio hori tutoreen eskura egongo da uneoro.
4. **Familiak informatzea:** Tutoreek ohiko komunikazio-kanalen bidez (helbide elektronikoa edo telefonoa) emango diete familiei seme-alaben ikaskuntza-prozesuaren berri.

2.2. IKASLEEN EBALUAZIOA: 2./3.AGERTOKIAK

2. eta 3. agertokietarako ikasleen ikasketa prozesuaren ebaluazioa

Urteko programazio didaktikoetan 2. eta 3. agertokietetako egoeretarako ezarri beharreko egokitzapenak jasoko ditzute.

Aurre-ebaluazio eta ebaluazio-bilerak egiteko prozedura

Aurre-ebaluazio zein ebaluazio-bilerak bideokonferentzia bidez egingo dira

1. **Bileren egutegia:** ikasturte hasierako bileren planifikazio berbera mantenduko da.
2. **Ikasleen ikaskuntza prozesuari buruzko informazioa:** irakasleek auren ikasleen informazioa bilera egin baino 24 ordu lehenago idatziko dute (DRIVE bidez partekatuko okumentuan) tutoreak informatzeko.
3. **Aurreebaluazio- eta ebaluazio-bilerak:** ikasleen ikaskuntza-prozesuari buruzko informazioa jaso eta emaitzak aztertuko dira .

3. PREBENTZIOAREN, HIGIENEAREN ETA OSASUNAREN SUSTAPENAREN OINARRIZKO PRINTZPIOAK

KONTAKTUAK MUGATZEA

Pilaketak saihesteko eta osasun- eta hezkuntza-agintariek ezarritako segurtasun-distantzia mantentzen dela bermatzeko ondoren zehazten diren babes neurriak ezarri dira.

1. Jendearen presentzia ikastetxean: Ahalik eta gehien mugatuko da ikastetxez kanpoko jendearen presentzia.
2. Ikasle-burbuilak: Burbuilak **mailaka egingo dira**, hau da, **maila bakoitza ikasle-burbuila bat izango da**, maila bereko taldeetako ikasleak hainbat ikasgaitan (erlijioa-balore etikoak, aukerakoak eta hautazkoak) ezinbestean nahastu behar baitira.
3. Ikastetxeko espazio komunak: Zentroko espazio komunetan pertsonak elkartzea saihestuko da; edukiera mugatuko da, bilerak 10 lagunetik gorako pertsona elkartzerik gabe egingo dira, eta pertsonen arteko distantzia mantenduz eta maskara jantzita.
4. Gurasoei edo tutoreei arreta ematea: Ahal dela telefonoz edo emailez emango zaie arreta, eta hori ezinezkoa bada, aurrez hitzordua eskatu beharko dute eta bileran maskara jantzi eta segurtasun-distantzia gordeko dute.
5. Ikastetxez kanpoko jendearekin egindako bileren erregistroa: Bilerak horretarako sortutako 20-21 Ikastetxez kanpokoekin bileren erregistroa dokumentuan jasoko dira.
6. Sarbideen murrizketak: Ikasleak, irakasleak eta pertsona baimenduak bakarrik sartu ahal izango dira ikastetxera.
7. Gune amankomunetan jende-pilaketak: Pilaketarik ez izateko eta aldi berean ez ibiltzeko, sarrerak eta irteerak leku ezberdinetatik antolatuko dira.

PREBENTZIO PERTSONALERAKO BABES-NEURRIAK

1. COVID 19 sintomak: Norberaren erantzukizunari helduz, etxean bertan tenperatura hartzea gomendatuko da ikastetxera joan aurretik. Ezin izango dira ikastetxera etorri COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten pertsonak, ezta gaixotasuna diagnostikatu zaien pertsonak ere, agindutako isolamendu-aldia bukatu ez badute, edo etxeko berrogeialdian dauden pertsonak, COVID-19aren sintomak edo diagnostikoa izan duen pertsonaren batekin kontaktu estua izan dutelako.
2. Maskaren nahitaezko erabilera: Ikastetxera ezin izango da sartu maskara jantzi gabe eta **erabiltzaile guztiek** maskara erabili beharko dute une oro ikastetxeko eremu osoan, bai eraikinean, bai kanpoan.

MENDATA BHI 2020-21 KONTINGENTZIA PLANA

3. Paperaren erabilera: Esku desberdinetatik pasatu den papera manipulatu bada, eskuak sakon garbitu behar dira eta, batez ere, prebentzio-neurri nagusi gisa, aurpegia ukitzea saihestu behar da eta, ahal bada, paper horiek gutxienez 2 egunetan ukitzea saihestu behar da.
4. Eskuak nahitaez desinfektatzea: Eraikinerako sartzekoan eskuak nahitaez desinfektatu behar dira. Horretarako, ikastetxeak gel-banagailuak jarriko ditu.
5. Gelak aireztatzea: Klase-tarteetan zenbait minutu pasatzen utziko da gela aireberritzeko. Ateak irekita egongo dira gelan, ahal den guztietan.
6. Segurtasun-tarteak mantentzea: Ahalik eta segurtasun-tarte handiena gordetzen saiatu behar da.
7. Lan egiteko tresnak eta materiala: Materiala eta tresnak partekatzea saihestu behar da. Pertsona anitzek erabiltzekoak badira, erabilera bakoitzaren ondoren garbitu/desinfektatu egin behar dira.

KASUEN KUDEAKETA

Isolamendu gela: Gela bat prestatu da COVID-arekin bateragarri diren sintomak dituzten pertsonak bertan isolatzeko, Hezkuntza Sailaren Protokoloak agintzen duen bezala.

1. Ikaslea bada:

Ikasle batek sintomak dituztenean edo irakasleek detektatzen dituztenean, **isolamendu-gelara lagundu, temperatura hartuko eta Zuzendaritzari jakinaraziko zaio**. Ikasleak zein irakasleak maskarekin egongo dira.

- Zuzendaritzak Prebentzio Zerbitzuko mediku arloari jakinaraziko dio, dagozkion jarraibideak jasotzeko.
- Ikastetxea familiarekin harremanetan jarriko da, ikaslea etxera eramateko eta familia osasun-zentroarekin harremanetan jarriko da medikuarekin honek emandako argibideak jarraitzeko.

2. Irakaslea bada:

Isolatu egingo da (maskara jantzita), Zuzendaritzari jakinarazi ondoren etxera joango da eta Zuzendaritza Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuko medikuntza arloarekin harremanetan jarriko da berehala.

- Egoera larria: Sintomekin hasi den pertsona egoera larrian badago edo arnasa hartzeko zailtasuna badu, 112ra deitu behar da.
- Ikastetxera itzultzea: Osasun-arloko profesional batek bere egoera medikoa baloratu arte, ikasleak zein irakasleak ezin izango dute ikastetxeko jardura presentzialera itzuli.

MENDATA BHI 2020-21 KONTINGENTZIA PLANA

- Ikastetxeko COVID kasuen jarraipena: Ikastetxeko COVID 19 kasuen jarraipena egingo duen arduradunak kasuen erregitroa COVID 19 kasuen jarraipena dokumentuan jasoko du.
- Gela desinfektatzea: Norbait isolatua egon ondoren, gelan garbiketa sakona egingo da, gutxienez 5 orduko denbora-tarte batez itxoin ondoren.

COVID 19AREKIKO KALTEBERAK DIRENEN KASUAK

COVID-19arekiko kalteberak direnen kasuan, (gaixotasun kardiobaskularrak, diabetesa, biriketako gaixotasun kronikoak, immunodepresioa, hipertentsio arteriala etab.) ikastetxera jo ahal izango dute, betiere haien egoera klinikoa kontrolatuta badago eta beren egoerak eskolatzea ahalbidetzen duela egiaztatzen bada.

Bereziki kalteberak direlako edo aldi baterako egoera larrian daudelako ikastetxera joan behar ez duten ikasleak kontuan hartuko dira, behar izanez gero prestakuntza modu ez- presentzialean emateko beharrezkoak diren laguntzak emateko.

COVID-19arekiko kalteberak diren langileen kasuan, osasun-agintarien jarraibideen arabera, Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak ezarritako prebentzio-neurriei, lekuaren egokitzapenari eta babesari buruzko txostena hartu behar da kontuan.

IKASTETXEAREN KUDEAKETA

Ezinbestekoa da irakastorduen lekuen edukiera zehaztea, osasun- eta hezkuntza-agintariei ezarritako segurtasun-tartearen arabera. Horretarako, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

1. Gelen edukiera/aforoa: Gelan guztiz beharrezkoak diren altzariak egongo dira gehieneko edukiera errespetatzeko.
2. Gelen esleipena: Irakasgaia behar bezala garatzeagatik egokia den ekipazioaren arabera esleitu dira gelak eskola-jarduerak egiteko.
3. Mintegien berrantolaketa: Mintegiak berrantolatu dira irakasleen artean segurtasun-neurriak bermatzeko. Horretarako, irakasleak birkokatzeko hainbat gela (musika, plastika, laborategia eta mintegien aurreko ikasgela) prestatu dira, segurtasun-distantziak eta beste osasun-neurri batzuk bermatuz.
4. Ikastetxeko Idazkaritza: jendeari arreta segurtasun handiagoz emateko, manpara bat jarri da arreta emateko.

4. DESINFEKZIOA eta AIREZTAPENA

1. Desinfekzioa: Hezkuntza Sailak kontratatutako garbitzailea goizero 2 ordu eta erdiz arituko da ikastetxean gehien ukitzen/erabiltzen diren gailuak/objektuak/guneak (komunak, ateen zein leihoen heldulekuak, barandak, telefonoak e.a.). Gelak egunean behin eta komunak egunean 3 aldiz, gutxienez, desinfektatuko dira.

MENDATA BHI 2020-21 KONTINGENTZIA PLANA

2. Gelak aireztatzea: Maiz aireztatuko dira eta klasea, ahal den guztietan, atea irekita emango dira.
3. Gel hidroalkoholikoa eta desinfektantea: Gela guztietan gel hidroalkoholikoa eta desinfektantea egongo dira, mahaiak, aulkiak eta talde ezberdinetako ikasleek partekatzen dituzten bestelako objektuak desinfektatzeko.
4. Garbiketarako erabilitako materiala: Garbiketa bakoitzaren ondoren, erabilitako materialak eta babes-ekipoak modu seguruan botako dira, eta gero eskuak garbituko dira.
5. COVID 19-ren eraginez erositako aparteko produktuak: COVID 19k eragindako pandemiaren ondorioz erosi beharreko aparteko produktuen inbentarioa egingo du horretarako izendatutako arduradunak.

5. KOORDINAZIOA

Kontingentzia Plan hau garatzekoko eta osasun-krisiaren egoeraren bilakaeraren arabera hartu beharreko neurriak erabakitzeko eta horien jarraipena egiteko ondoren azaltzen diren taldeen bidez egingo da:

1. OOGko Laneko Arriskuen Prebentziorako Batzordea: COVID-19 lantalde modukoa, oinarrizko printzipioak betetzen direla bermatzeko eta hezkuntza-komunitate osoak horren ezarpenaren berri izateko.
2. COVID-19 Jarraipen Batzordea: Batzorde hau pandemiarekin zerikusia duten estamentuekin harremanetan jartzeko eta haiekin lankidetzan aritzeko osatuko da. Jarraipen Batzorde horren **partaideak** hauexek izango dira: ikastetxeko zuzendaria, ikastetxeko lan-arriskuen arduraduna, OOGko kide bat, Berritzeguneko erreferentea eta ikuskaria, osasun publikoko lehen mailako arretako ordezkari bat eta udaletxeko gizarte-zerbitzuko ordezkari bat.
3. COVID-19rekin lotutako alderdietarako ikastetxeko arduraduna: ikastetxeko COVID kasuen jarraipena egingo du. Prebentzio Zerbitzuarekin eta segurtasun- eta osasun-laguntzailearekin ere harremanetan egongo da.

6. KONTINGENTZIA PLANAREN BERRI EMATEA HEZKUNTZA KOMUNITATEKO KIDEEI

1. **Irakasleei eta irakasle ez diren langileei**: Posta elektronikoaren eta zentroko ohiko bileren bidez: Pedagogia Batzordearen bilera, klaustro-bilera e.a.
2. **Ikasleei**: Tutoreen bidez, tutoretza saioetan eta irakasleen bidez, klase-orduetan, behar hainbat alditan.
3. **Familiei**: Posta elektronikoaren eta Kontingentzia Plana Batzordeko gurasoen ordezkariaren bidez.